



Bertaratuak:

Santiago Álvarez Folgueras Jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria HERRIKOA

Ernesto Delas Villanueva Jn.

Representante de las Federaciones de Asociaciones de Padres y Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarteen Federazioen ordezkaria SORTZEN

Amaia Zubieta Garciandia And.

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria STEE-EILAS

Iñaki Berasategi Zurutuza Jn.

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria LAB

Carmela Muñoz Ventura And.

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FETE-UGT

Francisco José Flores Pérez Jn.

Representante de las asociaciones Empresariales/Enpresari elkarteen ordezkaria

Estebe Petrizan Iriarte Jn.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Esther Monterrubio Ariznabarreta And.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Pilar Elcarte Elcarte And.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Alfredo Hoyuelos Planillo Jn.

Personalidad de reconocido prestigio/Aitortutako ospea duen pertsonalitatea

Cristina Bayona Saez And.

Representante de las Universidades/Unibertsitateen ordezkaria UPNA

Francisco Javier Pérez Cueva Jn.

Iruñean, 2016ko martxoaren 2aren 17:10 direlarik, Eskola Kontseiluko egoitzan (Kale Nagusia, 56 – Ezpeleta Jauregia) Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusiko Osoko Bilkura biltzen da, Aitor Etxarte Berezibar Jaunaren lehendakaritzapean, ondoan agertzen diren kideen presentziarekin, eta Fermin Casado Leoz Jn. Idazkari bezala, hurrengo gai-zerrendarekin:

1. Aurreko saioko aktaren berrikustea, eta badagokio, onespena.
2. Lehendakariaren informazio orokorrak.
3. Eztabaida eta, badagokio, 2/2016 Irizpenaren onespena, eremu ez-euskaldunaren ikastetxe publikoen D ereduko unitate baten irekierarako ikasle ratio gutxienezkoa finkatzen duen Agindu Foralaren proiektuaren gainekoa.
4. NHST Batzordea.
5. Galde-eskeak.



Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

Josu Repáraz Leiza Jn.

Representante de las entidades titulares de centros privados de Navarra-Federación de Ikastolas de Navarra/Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria-Nafarroako Ikastolen Elkarte

Fernando Barainca Lagos Jn.

Representante del profesorado de centros privados/Ikastetxe Pribatuetako Irakasleen ordezkaria FSIE-SEPNA

Jesús M^a Ezponda Iradier Jn.

Representante de Directores y Directoras de centros docentes privados concertados/Ikastetxe pribatu itunduetako zuzendarien ordezkaria

Javier Albizu Sanz Jn.

Representante de las entidades locales/Toki entitateen ordezkaria

Lourdes Larunbe Arretxe And.

Representante del Personal de Administración y Servicios de los centros Docentes/Ikastetxeetako Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkaria

Juan Ramón Elorz Domezáin Jn.

Representante de la Administración Educativa/Hezkuntza Administrazioaren ordezkaria

Sonia Cabrero del Amo And.

Representante de las Asociaciones que trabajan por la igualdad/Berdintasunaren alde lan egiten duten elkarten ordezkaria

M^a Soledad Garjón López And.

Representante del profesorado de centros públicos/Ikastetxe Publikoetako Irakasleen ordezkaria AFAPNA

Miren Aranoa Astigarraga And.

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (EH BILDU)

M^a Luisa de Simón Caballero And.

Representante del Parlamento de Navarra/Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria (I-E)

Jorge Lanchas Rivero Jn.

Representante de las entidades titulares de centros privados de



Navarra/Nafarroako Ikastetxe
pribatuetako entitate titularren
ordezkaria/ANEG-FERE

Pedro María Baile Torrea Jn.

Representantes de las Federaciones de
Asociaciones de Padres y Madres/
Ikasleen Gurasoen Elkarte
Federazioen ordezkaria CONCAPA

Ignacio Toni Echeverría Jn.

Representante de las Personas con
discapacidad de Navarra/Nafarroan
desgaitasuna duten pertsonen
ordezkaria/ CORMIN

Camino Bueno Zamarbide And.

Representante de Directores y Directoras
de centros docentes públicos/Ikastetxe
publikoetako zuzendarien ordezkaria

José María Carrillo Álvarez Jn.

Representante de las Federaciones de
Asociaciones de Padres y
Madres/Ikasleen Gurasoen Elkarte
Federazioen ordezkaria HERRIKOA

Sergio Gómez Salvador Jn.

Representante de las Federaciones de
Asociaciones de Padres y Madres/
Ikasleen Gurasoen Elkarte
Federazioen ordezkaria CONCAPA

Bere absentzia desenkusatzan dute:

Aurora Bernal Martínez de Soria And.

Representante de las Universidades
/Unibertsitateen ordezkaria. Universidad
de Navarra/Nafarroako Unibertsitatea

Ez ziren bertaratu:

Mikel Fernández de Quincoces

Martínez de Birgala Jn.

Representante de la Administración
Educativa/Hezkuntza Administrazioaren
ordezkaria

Ignacio M^a Iraizoz Zubeldía Jn.

Representante de las entidades titulares
de centros privados de
Navarra/Nafarroako Ikastetxe
pribatuetako entitate titularren
ordezkaria/ANEG-FERE



M^a José Anaut Couso And.
Representante de las organizaciones
sindicales/Sindikatu en ordezkaria/UGT

1. Aurreko saioko aktaren berrikustea, eta badagokio, onespena.

Aurreko saioaren aktaren zirriborroaren 5. puntuan, bere parte-hartzearen edukia ez zuela ongi islatzen azaltzen du Lehendakariak, “Nafarroako haurren aldeko aliantza”ri Nafarroako Eskola Kontseiluaren gehitze instituzionalari dagokiona. Hitz egindakoa eta adostutakoa era fedelez islatzeko, 5. puntuaren azkeneko bi paragrafoak beste hauekin ordezkatu beharko lirateke:

“Lehendakariak dio gauza bat dela Aliantza batetara atxikitzea, laguntza bilatzen duen Plataforma bat dena, eta bestea dokumentuaren testua, batzuetan, eztabaidagarriak diren elementuak dituenak. Zentzu honetan, hitz egindako kideek azaldutako ulertzen du, plataformari bere sostengua erakustea dio, baina dokumentuari, zehazki, eutsi gabe.

Azkeneko proposamen hau bozkatzen da, eta aldeko 17 botoekin eta 4 abstentzioekin Eskola Kontseiluak adosten du UNICEFek bultzatutako eta eremu ezberdineko erakundeek parte-hartzen duten lan-plataformari bere sostengua adieraztea, plataforma honek haur eta nerabeen eskubideak sustatzeko neurriak definitzea eta bultzatzea du helburu.”

Testu honetan Kontseiluak lan plataforma babesten duela baina ez berak egindako testua argi geratzen da, egindako zuzenektarekin bat datoz beste kideak, baieztapenez.

Beste alde batetik, aktaren zirriborroan egiteko hurrengo zuzenketak bidali dituela Alfredo Hoyuelosek e-mailez, adierazten du Idazkariak:

“6. orrian



“Eskubideen subjektua” jartzen duen tokiko semantika eta izendapena “beharren objektua”rekin aldatzearen beharra azaltzen du” baina “beharren objektua”ren izendapen eta semantika aldatzearen beharra adierazten du, eta bere orde “eskubideen subjektu” egokiagoa jartzea”.

“Bai Reggio Emiliako udal esperientziaren batean” jartzen duen tokian “Reggio Emiliako udal hezkuntza esperientzian” jarri beharko luke.

8. orrian

“12 ikasle A eredia daukate, eta besteak, ia guztiak...” jartzen duen tokian “13 ikaslek A eredia daukate gela bakar batean, eta besteak, 330 ikasle, D ereduan daude”.

Bertaratutakoak proposatutako zuzenketak baieztapenez onartzen dituzte.

Beste alde batetik, aurreko saioan egindako hitzaldian, 2. Batzordean Administrazioako ordezkariak ez sartzeagatik harridura adierazi zuela esaten du Lourdes Larumbek, 3. Batzordean eskatzen zuena. Zehazketa hau aktan islatzea adosten da.

Azkenik, Camino Buenok dio aktaren 1. puntuan TDHren diagnostikoaz hitz egiten dela, eta kasu honetan, terminologia zuzena TDA-H dela gogorarazten du, aktan islatuko dena ere.

Aurreko zuzenketekin akta baieztatzen da.

2. Lehendakariaren informazio anitzak.

Aurreko Osoko bilkuratik burututako jardueri buruzko informazioa ematen die Lehendakariak bertaratutakoei. Azpimarratzeko gauzak bezala, hurrengoak azaltzen ditu:



- Nafarroako Eskola Kontseilua eta Parlamentuaren arteko hitzarmenaren eguneraketa sinatu egin da.
- NHSTaren batzordea osatu eta funtzionatzen hasi da.
- Kontseilutik berrikuntza proiektuak bultzatzen jarraitzen da.
- 0-6 jardunaldien antolaketan lan egiten ari da, bertara joateko eskaera garrantzitsu bat dagoelarik.
- Kontseiluaren webean berriak eta edukiak eguneratzen jarraitzen da, bereziki praktika onak ikusgarriak egiten dira, hala nola Kontseiluaren berri propioak.
- Kontseiluak berri anitzak e-mailaren bitartez bidaltzen jarraitzen ditu (azkenekoa Barasoingo eskolari buruz).
- “Familia eta eskola” hurrengo monografiaren argitaratzearen aurreko fasea bukatu da, hilabete baten inguruan aterako dena.
- FNMCrekin batera Valentziako Eskola Kontseiluaren Udal Eskola Kontseiluei buruzko jardunaldi bat garatzeko proposamena dinamizatzen saiatzen ari da.
- Kudeaketa ezberdinak egin ondoren, Eskola Kontseiluko itundutako ikastetxeen ikasleen ordezkartzarako bi pertsona lortu dira, eta martxoaren 13rako irakaskuntza publikoko ikasleen ordezkariak ere prest egotea espero da.

3. Eztabaida eta, badagokio, 2/2016 Irizpenaren onespena, eremu ez-euskaldunaren ikastetxe publikoen D ereduko unitate baten irekierarako ikasle ratio gutxienezkoa finkatzen duen Agindu Foralaren proiektuaren gainekoa.

Lehendakariak adierazten du dagokion Batzordeak arau proiektuaren gaineko irizpen bat landu duela, eta Estebe Petrizani hitza ematen dio. Honek, tramitazioa justifikatzen duen arrazoiak azaltzen ditu. Baita ere, Nafarroako hiri eremuekin batera (Iruñea eta Iruñerria eta Tuteran), beste eremu oso anitzak existitzen direla, landa eremuko eskolak koka daitezkeenak dio. Horregatik, arau proiektuak eremu ez-euskalduneko D ereduko unitate berriak irekitzeko irizpide orokorra finkatzen du, baina



ez-ohiko baldintzetako kasuetan kasuz kasuko errealitatera moldatzeko atea irekia uzten du.

Camino Buenok eskatuta, testuan zehar batzuetan “gutxienezko ratioa”ri buruz hitz egiten dela adierazten du Lehendakariak. Camino Buenok hau baieztatzen du, “ratio” femeninoz adieraztea baino zuzenagotzat jotzen baitu, testu osoa bateratzea proposatzen du. Bertaratuak iradokizuna baieztapenez onartzen dute.

Ondoren, aurkeztutako zuzenketen aztertzen dira.

1. zuzenketa.

4/2015 Lege Foralak erabiltzen duen hizkera aldatzea proposatzen duela zuzenketaren zati batek, adierazten du Juan Ramón Elorzek, ezin dena onartu, idazkera okertzat jo arren. Zuzenketa esandako salbuespenarekin, bertaratutakoen baieztapenez onartzen da.

2. zuzenketa.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketa azaltzen du eta malgutasuna eskatzen du euskalduna ez den eremuan D ereduko gelak irekitzeko, 8 ikasleen arau orokorraren gainetik eta unitatearen gutxienezko ratioa finkatzen duen proiektuaren gainetik.

Juan Ramón Elorzek dio testuak salbuespen hauek baimentzen dituela, eta horregatik Agindu Foralak “orokorrean” adierazkera erabiltzen du. Sexista ez den hizkerari dagokionez, ados agertzen da.

Alfredo Hoyuelosek azalpenak onartzen ditu eta zuzenketa kentzen du, hizkerari dagokiona salbu, bertaratuek onartzen dutelarik.

3. zuzenketa.

Alfredo Hoyuelosek detektatutako akatsa azaltzen du eta, hain agerikoa izanda, bertaratuek onartzen dute.

4. zuzenketa.



Alfredo Hoyuelosek aurkeztutako zuzenketa erretiratzen du.

5. zuzenketa.

Francisco José Floresek zuzenketa azaltzen du. Arau orokorraren salbuespenak ez direnez arautzen, unitate berrien irekieraren erabakia oso aukerakoa dela adierazten du. Arrazoienez zerrendaketa oso argi eta esanguratsua da, esaten du, baina unitateko 8 ikasleen irizpide hau beste ereduetan ere erabili beharko litzatekeela dio. Beste eremu eta ereduera irizpen hau bera zabaltzea irizpenean islatzea proposatzen du.

Juan Ramón Elorzek dio Agindu Foral hau Parlamentuaren agindu bat betetzen duela besterik ez, eta bere helburu bakarra eremu ez euskaldunean D ereduko unitateak irekitzea da, irizpenaren helburu bera. Ezin da irizpenean proposamen hau sartu, beste toki batean baizik.

Francisco José Floresek adierazten du Eskola Kontseiluak afera hau gehitzea eska dezakeela, bere funtzioen barruan sartzeko baita. Honi, Juan Ramón Elorzek erantzuten dio ezin dela irizpen honetaz aprobetxatu beste gauzak arautzeko.

Jesús M^a Ezpondak dio eskuarteko polemikoa dela, baina ez direla ezberdintasunik egin behar, eta irizpide berak erabili beharko liratekeela eredu guztientzako uste du.

Ernesto Delásek dio arazo edo egoera beraren aurrean, erantzun edo konponbide bera egon beharko lukeela. Irizpideak berak izan beharko liratekeela eredu guztietako, baina ez sare guztientzako baizik eta publikoarentzako bakarrik.

Sergio Gómezek dio berak zuzenketa babestuko duela hezkuntza askatasun eta familien aukeraketa (sare, eredu eta programa) askatasun agertze bat delako eta Kontseiluak honetarako eskumena duelako.

Estebe Petrizanek dio Foru Agindu honek orain arte eskubide hau ez zuten familiei ematen diela eta euskaraz eremu ez euskaldunean ikasteko aukera ematen



diela. Horregatik, diskriminazioaz hitz egitea ez zaio egokia iruditzen, ezta positiboa bada ere, abiatzen den puntutik.

Javier Albizuren ustez, ez dagto hain argi edozein hezkuntza eredu aukera daitekeen, eta orain arte landu ez diren aferak ere daudela, ereduak baino garrantzitsuago, ereduak baino garrantzitsuagoak, haurren eskubideekin zerikusia dutenak, ikastetxe batzuen egoera bezala.

Camino Buenok dio ez direla ikastetxea aukeratzeko askatasunarekin zerikusia duten kontuak, ezta eskolatzearekin zerikusia dutenak ere. Egiten duen gauza bakarra aginpe legala betetzea da, eremu ez euskaldunearan eskola unitate bat irekitzeko haurren gutxienezko kopurua zehaztea.

Zuzenketa hau bozkatu ondoren, aldeko 10 boto eta kontrako 18 jasotzen ditu, eta beraz, ezetza ematen zaio.

6. zuzenketa.

Alfredo Hoyuelosek zuzenketa erretiratzen du.

7. zuzenketa.

Amaia Zubietak zuzenketa azaltzen du eta Lege Foralak ez duela ratioaren araudi garapenerako epe bat finkatzen adierazten du. Eskaintzaren markoaren indefinizioa dela eta, ratioa oraindik ez finkatzea hobe dela esaten du. Edozein kasuan, Agindu Foralak malgutasuna uzten duenez, zuzenketa kentzen du, Iñaki Berasategik babesten duen erabakia.

8. zuzenketa.

Fernando Baraincak dio 5. zuzenketaren eztabaidan gai hau bera joratu dela, beraz, esandako zuzenketaren proposamenari bere babesa erakutsi nahi dio soilik.

Juan Ramón Elorzek dio gai honetaz aurretik esandakoa errepikatuz ematen dela, eta edonola ere, zuzenketak ez duela testu alternatibo baten proposamenik agertzen, beraz, zaila da onestea edo bozkaketara eramatea. Ez dela



Administrazioaren helburua Kontseiluaren proposamenari oztopoak jartzea, baizik eta irizpen hau ez dela bide egokia bakarrik.

Zuzenketa bozkatu ondoren, aldeko 10 boto eta aurkako 18 jasotzen ditu, beraz, baztertzen da.

Azkenik, irizpena bere osotasunean bozkatzen da, aldeko 17 boto, aurkako 3 boto eta 8 abstentzioekin onesten da.

Iñaki Berasategi eta Amaia Zubietak agerrarazi nahi dute beren abstentzioaren arrazoiak, gutxienezko ratioaren finkatutako zenbakiarekin bat ez datozela dela, aldez aurretik egungo egoera balioztatu beharko baitzen.

Javier Albizuk dio bere abstentzioa tramitazioarekin ez ados egoteagatik dela.

Bere aldetik, Francisco José Floresek dio boto partikular bat bidaliko duela.

Fernando Barainca ados dago eremu ez euskaldunaren D ereduko eskaintza arautzearekin, baina eredu, sare eta eremu guztientzako irizpide uniformeak finkatzea beharrezkoa dela adierazten du, bere botoaren zentzua azaltzen duena.

4. NHST Batzordea.

Dokumentua hobetzeko, NHST batzordearen jardueraren hasierari buruz informatzen du Lehendakariak. Hurrengo bilera martxoaren 16an burutuko da, eta han bertaratuko dira bai batzordekideak, baita Kontseilu kanpoko aditu batzuk eta erakunde honen langileak ere.

5. Galde-eskeak.

José María Carrillok bi afera planteatu nahi dizkio Hezkuntza Departamentuari:



- Ikastetxe publikoetan ikur erlijiosoen araudiren bat existentzia al den edo ez. Departamentuari, gai hau arautzea edota ikastetxeei irizpidea bidaltzea eskatzen dio.
- Dantza eskolaren egoera administratiboa. Ez dela titulutzen, ez baitzuen oinarrizko zikloa kontserbatorio bat bezala bukatu, eta gainera, familien inplikazioa ia ez dago, ez dagoelako ez Eskola Kontseilurik ezta Guraso Elkarerik ere ez.

Estebe Petrizanek dio galdera hauen erantzuna eskuratuko zaiola.

Beste alde batetik, kideei araudi proiektuak bidaltzerakoan, zuzenketa egiteko epea adieraztea eskatzen du Camino Buenok. Honi, Lehendakariak saiatuko dela erantzuten dio, horrela Iraunkorrak aldez aurretik ikus dezala, Osoko Bilkura baino lehen.

Santiago Álvarezek Hezkuntza Departamentuari galdetzen dio ea Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. mailako froga diagnostikoak egingo dituen galdetzen du.

Estebe Petrizanek oraindik erantzun bat ezin duela eman esaten dio, autonomi erkidego ezberdinen arteko burutu zen bilera batean ez baitzegoen irizpen bakarra horrentzako. Barru erabilerako ebaluazio diagnostiko bat prest daukala Departamentuak dio, baina ezin da LOMCE ebaluazio bat kontsideratu.

Azkenik, Amaia Zubietaren galderaren aurrean, Estebe Petrizanek gehitzen du ebaluazio hau boluntarioa izango dela.

Eta landu beharreko gai gehiagorik gabe, Osoko bilkuran bertaratutako kideen parte-hartzea eskertzen du eta saioari amaiera ematen dio 18:45 orduetan.